

2006ko hirugarren hiruhilekoan aurreko urteko aldi berean baino ezkontza gutxiago izan zen

Arabian eta Bizkaian %4,1 eta %5,2 gutxitu zen ezkontza kopurua (hurrenez hurren), baina Gipuzkoan %2,7 gehitu zen

EUSTATen datuen arabera, 2006ko uztailan, abuztuan eta irailean guztira 3.286 ezkontza egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, hau da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean kopuru hori %3,4 gutxitu da. Bizkaian 1.675 ezkontza egin ziren, aurreko urteko aldi berean baino %5,2 gutxiago, eta Araban 421 ezkontza, aurrekoan baino %4,1 gutxiago; soilik Gipuzkoan gehitu zen ezkontzen kopurua, 1.085 egin zirelako, hau da, aurreko urteko aldi berean baino %2,7 gehiago. Euskal Autonomia Erkidegokoak ez diren egoiliarren artean 105 ezkontza egin ziren.

Uztaila da ezkontzeko hilabete gustukoena

Uztailan egin zen ezkontza gehien (1.494), eta gero irailean (1.399). Bestalde, aurrekoetan bezala, ezkontza gutxien (393) izan zituen udako hilabetea abuztua izan zen.


Ezkontzen %65,8 erlijiosoak izan ziren, eta aurreko urteko aldi beraren aldean %3,3 gutxitu ziren. Nolanahi ere, hiruhileko honetan neguko hilabeteetan baino ezkontza erlijioso gehiago egin da; hain zuzen, neguko ezkontzen %75 baino gehiago zibilak izan ziren. Gipuzkoan ezkontza kanonikoak guztien %57,1 izan ziren, Bizkaian %60,3 eta Araban %64,1.

2006ko hirugarren hiruhilekoko 3.286 ezkontzen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar ziren 3.193 gizon eta 3.245 emakume ezkondu ziren. 3.001 senar (%94) lehenengo aldiz ezkondu ziren eta, bestalde, 10 gizonezko alargun eta 182 gizonezko dibortziatu berriz ezkondu ziren. Emakumeen lehenengo ezkontzen ehunekoa gizonenaren antzekoa izan zen: aldi horretan 3.045 emakume ezkongabe (%93,8), 12 emakumezko alargun eta 188 emakumezko dibortziatu ezkondu ziren.

Ezkontzak ezkontideen adinaren arabera banatuz gero, emazteen %52ak 30 urtetik gora zituen eta adin-tarte horretako gizonen kopurua %68,4koa izan zen.

	2006eko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2006eko 2. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. Bera (2005eko 3. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	3.286	100,0	2.920	100,0	3.403	100,0
Kanonikoak	1.980	60,3	1.503	51,5	2.162	63,5
Zibilak	1.306	39,7	1.417	48,5	1.241	36,5
SENARGAIK	3.193	100,0	2.843	100,0	3.277	100,0
Ezkongabeak	3.001	94,0	2.627	92,4	3.089	94,3
Alargunak	10	0,3	14	0,5	13	0,4
Dibortziatuak	182	5,7	202	7,1	175	5,3
EMAZTEGAIK	3.245	100,0	2.874	100,0	3.367	100,0
Ezkongabeak	3.045	93,8	2.673	93,0	3.197	95,0
Alargunak	12	0,4	8	0,3	6	0,2
Dibortziatuak	188	5,8	193	6,7	164	4,9

1. grafikoa: Ezkontzen hilez hileko mugimendua



Iturria: EUSTAT

oinarria 100 = b.b.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp